

DIRU ITURRIAK

Ekonomian, irabazia, irabazkina edo diru sarrera erakunde edo enpresa batek denbora jakin batean kontsumorako edo aurrezpenerako eskuratzen dituen aukerak dira, gehienetan diruaren bidez zenbatzen direnak.

Kasu honetan, gure URTEKO diru sarrerak aztertu ditugu.

KONTZEPTUA	KANTITATEA
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza	40000 euro/urtea
Gasteizko Udaletxea	15000 euro/urtea
Kirol Jardueraren prezioa	10 euro/ hilabete= 1200 euro/urtea/pertsona 75 pertsona estimatzen dugu apuntatzea. Guztira= 9000 euro/ urte
Bazkide Kuotak	50 euro/ urte= 5000euro Estimatuta 100 bezero izango ditugula.
Donazioak	1500 euro/urtea
Zozketak eta bestelakoak	1000 euro /urtea
Etxez etxeko zerbitzua	5 euro ordua= 36000euro/ urtean 50 pertsonak zerbitzu hori kontratatuko dutela estimatuta, eta 3 ordu astean egingo dutela.
Totala	107500 euro/ urte

Gure diru sarrerak ez dira produktu bat saltzean oinarritzen. Guk zerbitzu bat eskaintzen dugu, baina zerbitzu hori eskaintzearen ondorioz

dauzkagun diru sarrerak ez dira nahikoak gure ekintzak aurrera eramateko, orduan bestelako diru sarrerak behar ditugu, gure langileak ordaintzeko (kirol begiraleak, alegia), alokairua ordaintzeko, garbiketa empresa ordaintzeko... Hona hemen gure diru sarrerak:

Finantzazio publikoa guretzat ezinbestekoa da , gure diru sarreren gehiengoa baita, eta subentzio publikoa eukiko ez bagenu oso zaila izango litzateke proiektua aurrera eramatea. Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko udaletxeak subentzionatzen du gure ekintza. Orain, COVID-19 dela eta gure egoera tamalgarria da, ez dugulako lokala erabiltzen (espazio txikia da, eta ez da segurua ekintzak hor egitea), baina alokairua ordaintzen jarraitzen dugu, etorkizun batean gure ohiko jarduera berreskuratu nahi dugulako.

Elkarteko kideak ordainduko duten dirua urte hasieran elkartearen parte izateagatik (50euro urteko) diru sarrera da, baino oso txikia. Horrekin soilik ezingo genuke ekintza aurrera eramane, baina beste diru sarrera bat da.

Donazioak jasotzeko guztiz irekita gaude. Edonork donazioa egin nahiko balu, gure elkartera gerturatzea eta informazio guztia eskainiko diogu. Beste enpresa batzuen donazioak ere ongi etorriak izango dira. Gure estimazioa 1500 euro lortzea izango da urte honetan.

Diru bilketak (merkadilloak, zozketak...) gure diru sarreren zati bat izango dira. Noizean behin merkadilloak, zozketak, festak eta holako ekintzak antolatuko ditugu, eta ateratako diru guztia gure elkartearen jarduera hobetzera zuzenduko dugu. Gutxi gorabehera 1000 euro biltzea espero dugu.

Azkenik, etxez etxeko zerbitzua eskaintzen dugunez, finkatutako tarifa 5euro/ordukoa da. Estimaten dugu 50 pertsonen zerbitzu hau eskatzea 3 ordu astean.